

MENDATAKO NOSTRADAMUS



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Mendata (Bizkaia), 1819. Eulalio Intxausti Gomeztegi jaio zen -hainbat iturrik, hala nola Joxemiel Barandiaranek eta Jose Luis Ortigosak diote Hilario zuela izena-. Gaztetan baserriko lanetan aritu zen eta ez zuen sekula gaztelania ikasi; euskara hutsez moldatu izan zen beti. Azken Gerra Karlistan, iragarpenak ziurtasun handiz esaten hasi omen zen eta, berehala, profeta edo igarle esaten hasi zitzaizkion ingurukoak.

Ez dakigu zehazki nondik zetorkion dohaina. Behin Kortezubiko Salbide baserrira joan omen zen arrebari bisita egitera eta, bueltan, Mendatara bidean, emakume batekin egin omen zuen topo. Arratzuko Santo Tomas elizara iritsi zirenean, emakumea iragarpenak egiten hasi omen zitzaion. Beste bertsio batekin dio behin gizonezko misterioitsu batekin egin zuela topo eta handik aurrera etorkizuneko irudipenak etortzen hasi zitzaizkiola.

Kontua da arrakasta handia lortu zuela Intxaustik eta goizero baserrira bisitari andana iristen zitzaiola etorkizunari buruzko erantzunen bila.

“Bezero” partikularrak hartzeaz gain, XX. menderako iragarpen orokor ugari egin zuen. Gurdiak tximista bezain bizi ibiliko ziren; Bilbo aglomerazioak jango zuen eta jendeak elkarri enbarazu egingo zion; erlijio katolikoa gainbehera etorri-



Arratzu, Santo Tomas elizaren ataritik. Joxemiel Barandiaranek jaso zuenez, Mendatako profetak behin emakume batekin egin omen zuen topo eta, eliza honetara iristean, emakumeak gerora ospetsu egingo zuten iragarpenak esan omen zizkion.

BILBOKO ELIZBARRUTIA

ko zen, apaizen beraien erruz; kale-argiek bazter guztiak argituko zituzten, ipurtargiak bailiran; zeruan txori handi modukoak azalduko ziren, gizakiek gidatuta; eta txori horiek, prusiarrek gidatuta, Gernika erreko zuten oso-osorik...

1937ko Gernikako bonbardaketaren iragarpena ikusten du askok hor, baina, Intxaustik ikusten omen zuena sekula idatziz jaso ez zuenez, ez dakigu azalpenak zehaztasun horrekin eman zituen ala bere hitzak gerora moldatuak izan ziren gertatutakoarekin bat egiteko.

Munduaren akabera gertu ikusten zuten eta horren seinale izango omen

zen bidegurutzeak nonahi eta tabernak ia ate guztietan egongo zirela. Aita Barandiaranek dio tabernen aipamena ez zela ezohikoa eta, esaterako, Ataunen eta Zeanurin ere zurruta eta apokalipsia lotu izan zituztela.

Mendatako igarlek ez zuen sekula proselitismorik egin; ez zen baserritik irten jarraitzaile bila. Bere zerbitzuen-gatik ere ez zuen ofizialki kobratzen. Hori bai, bisitariak oiloa edo barazkiak besapean zituztela etortzen omen zitzaizkion. Beharbada, eskatu gabe ere ordainsari bikaina jasoko zuela igarriko zuen. ■



OKLAHOMA HISTORICAL SOCIETY

Erosoago (eta gehiago) erosteko orga

1936an Sylvan N. Goldman Standard eta Piggly-Wiggly janari-denda kateen jabea zen Oklahoman (AEB). Bezeroak kutxetara paperezko poltsak erdi hutsik iristen zirela konturatu zen, poltsak erraz puskatzen zirelako eta bezeroei ez zietelako dendan lasai ibiltzen uzten. Aulki tolesgarri bati gurpil batzuk eta bi saski erantsi zizkion, bata bestearen

gainean, eta, hala, erosketetarako orga asmatu zuen (argazkian). Asmakizunak arrakasta handia izan zuenez, Godmanek elikagaien sektorea utzi zuen eta orga fabrika bat sortu zuen 1947an. Enpresa berria, besteak beste, aireportuetan maletak garraiatzeko erabili ohi ditugun orgak merkaturatzen lehena izan zen. ■